AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2261

658/2013 EBAZPENA, apirilaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitara ematen da I. eranskinean txanda irekian sartutako Familiako Medikuen kategoriako esleipendunen izendapena, pertsonal estatutario finko gisa. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan daude.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko zituzten oinarri orokorrak onartu ziren eta 2011ko uztailaren 27ko 142. EHAAn argitaratu ziren).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 29ko 1468/2011 Ebazpenaren bidez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Familiako Medikuen kategorian pertsonal estatutarioaren izaeraz jabetzeko aukeraketa-probetarako deia egin zen, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde sanitarioetan izanik. Deialdi hori 2011ko irailaren 15eko EHAAn, 176. zenbakian, argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urtarrilaren 31ko 22/2013 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrialdean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Familiako Medikuen kategoriako pertsonal estatutarioa izateko hautatze-probei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpen horren 16. oinarrian xedatutakoari jarraiki, Familiako Medikuen kategoriako izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari helarazita, web-orrialdean argitaratzeko, langileen alorrean indarrean den legediak aitortutako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAn argitaratzeko agintzea I. eranskinean txanda irekian sartutako Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Familiako Medikuen kategoriako esleipendunen izendapena, pertsonal estatutario finko gisa, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute bakoitzari dagokion destinoko lanpostuaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lehiatzaileak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentralean jabetuko dira destinoez. Horretarako, izangaiek aldez aurretik hitzordua eskatu beharko dute, eta ekitaldi horretan agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

– NAN, pasaportea edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalentzat, eta dokumentu mota bera langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalitatea dutenen kasuan (Europar Batasuneko Itunaren, Espainiak berretsitako bestelako itunen edo legeen arabera).

Parte hartzeko eskubidea izanik, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen batekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitorpen bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontideagandik eskubidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, izangaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez, izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik ez dagoela kanporatuta eta eginkizun publikoetarako ez dagoela ezgaitua adierazten duen zinpeko aitorpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko aitorpenaz gain, zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako gaitasunez gabetuta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzea eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu esleitu zaien langile estatutarioaren destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaketa-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Lehenago ezarri bezala, destinoaz jabetzen diren izangaiak eginbide hori bete eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, dagokien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 22. atalean ezarritakoan oinarrituta, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

I. ERANSKINA

KATEGORIA: FAKULTATIBO ESP. FAMILIAKO MEDIKUA - LMT

IREKIA - DESTINOEN ESLEIPENA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAKULTATIBO ESP. FAMILIAKO MEDIKUA - LMT

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig.data	Lanaldia
30692638N	Anton Diez-caballero, Begoña	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk. - Usansolo (Kons.)	2		Goizez
30690332Y	Ibarruri Martinez, Eneko	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk. - Matiena (OZ)	2		Zatituta
18006733X	Codes Gomez, Jose	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Lakuabizkarra (OZ)	2		Arratsaldez
34095423Q	Baranda Gomez, Begoña	Bidasoa Osasun Erakunde Integratua	Bidasoako ESI - Hondarribia	2		Arratsaldez
44171863H	Vita Garay, Luis Alejandro	Debabarreneko Erakunde Sanit. Integratua	Debabarreneko ESI-Ermua (OZ)	2		Goizez
44148784P	Gonzalez Miguel, Raquel	Gipuzkoa Eskualdea	Gip. Esk. - EAG Eskualdea	2	2010-07-01	
44165351S	Nuñez Ochoa, Iñigo	Debagoieneko Erakunde Sanitario Integr.	Debagoieneko ESI-Arrasate (Anb.)	2		Goizez
44151187L	Ostolaza Garcia, Igor	Gipuzkoa Eskualdea	Gip. Esk. - EAG Eskualdea	2		
22743189F	Perez Fernandez, Maria Esther	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk.-Kareaga (OZ)	2		Goizez
16254003H	Vega Dominguez, Elena	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Lakuabizkarra (OZ)	2		Arratsaldez
30643023P	Gonzalez Gomez, Purificacion	Debagoieneko Erakunde Sanitario Integr.	Debagoieneko ESI - EAG Eskualdea	2		
72578477E	Zialtzeta Aduriz, Larraitz	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk.-Markina (OZ)	2		Arratsaldez
15260346F	Moran Perianez, Eva Maria	Goierri-Urola Garaiko Erak. Sanit. Integ	Goierri-Urola Garaiko ESI-Zumarraga (OZ)	2	2010-12-01	Goizez
30584058S	Cao Rodriguez, Veronica	Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskuald.	Ezk.-Enk. Esk.-Urban (OZ)	2		Arratsaldez
30642752J	Toscano Pardo, Maria Begoña	Bilboko Eskualdea	Bilboko Esk.-Mina del Morro (OZ)	2	2011-06-01	Arratsaldez
15969939G	Ayarza Azurza, Miren Arantzazu	Goierri-Urola Garaiko Erak. Sanit. Integ	Goierri-Urola Garaiko ESI - Zaldibia (Kons.)	2	2005-06-01	Goizez
30649636C	Perez Llerandi, Antonio	Bilboko Eskualdea	Bilboko Esk.-Saralegui (OZ)	2		Arratsaldez
72476827D	Madina Elizondo, Katixa	Goierri-Urola Garaiko Erak. Sanit. Integ	Goierri-Urola Garaiko ESI-Zumarraga (OZ)	2		Arratsaldez
14255922Q	Barragan Alejos, Maria de la Luz	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk.-Gatika (Kons.)	2	2008-06-01	Goizez
72482771L	Mendizabal Escalante, Estibaliz	Goierri-Urola Garaiko Erak. Sanit. Integ	Goierri-Urola Garaiko ESI-Legazpi (OZ)	2		Arratsaldez
44674031G	Ibañez Lopez, Maria Isabel	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-San Martin-Ariznabarra (OZ)	2		Arratsaldez
44978280D	Azkarate Estebez, Naia	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk.-Lemoiz (Kons.)	2	2010-06-01	Goizez
44166052A	Imaz Aristimuño, Nora	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Etengabeko Atentzioa (EAG)	2	2008-06-01	
78875841D	Calvo Garro, Belen	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk.-Ondarroa (OZ)	2	2005-06-01	Arratsaldez

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig.data	Lanaldia
34104338F	Barruso Bares, Carlos	Debabarreneko Erakunde Sanit. Integratua	Debabarreneko ESI-Ermua (OZ)	2		Arratsaldez
16292521B	Gonzalez Ibañez, Esther	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-San Martin-Ariznabarra (OZ)	2		Arratsaldez
72575987Q	Peñaranda Rovira, Arianne	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk.-Bermeo (OZ)	2	2005-06-01	Goizez
16240029M	Lopez de Viñaspre Muguerza, Inmaculada	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-San Martin-Ariznabarra (OZ)	2		Arratsaldez
16292463E	Quintana Urrea, Elena	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Sansomendi (OZ)	2		Arratsaldez
78950983X	Larrieta Reategui, Gina	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk. - Okendo (Kons.)	2	2010-06-01	Goizez
78878920Y	Donaire Urquijo, Maria del Carmen	Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskuald.	Ezk.-Enk. Esk.-Rontegui (OZ)	2	2011-06-30	Arratsaldez
13911218J	Barquin Gomez, Esther	Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskuald.	Ezk.-Enk. Esk.-Zuazo (OZ)	2		Arratsaldez
44613579L	Oteiza Larrechea, Laura	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk. - Busturia (Kons.)	2	2008-06-01	Goizez
15393390L	Minondo Amuchastegui, Leire	Barrualdeko Eskualdea	Barrualdeko Esk.-Bermeo (OZ)	2	2010-12-01	Arratsaldez
30616059T	Garcia Parra, Jose Maria	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk.- Derio (OZ)	2	2010-12-30	Arratsaldez
72451943B	Aizpuru Segurola, Maria Olatz	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk.-Mungia (OZ)	2	2010-12-01	Arratsaldez
15374222X	Gomez Rodriguez, Maria Nieves	Bilboko Eskualdea	Bilboko Esk.-EAG Eskualdea	2		
78898554K	De Busturia Artiagoitia, Eider	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk. - EAG Eskualdea	2		
78874440B	Jaka Elgezabal, Ziortza	Uribe-Kostako Eskualdea	Uribeko Esk.-Erandio (OZ)	2		Arratsaldez
44671995S	Etxagibel Galdos, Aitziber	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Alde Zaharra (OZ)	2		Arratsaldez
20168809V	San Emeterio Lamborena, Rosa Ana	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Sansomendi (OZ)	2		Arratsaldez
14940952Z	Santiago Urresti, Miguel Angel	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Aranbizkarra (OZ)	2	2011-06-01	Arratsaldez
16065424Q	Dominguez De Bidaurreta Gil, Amaia	Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskuald.	Ezk.-Enk. Esk.-Markonzaga (OZ)	2	2011-06-01	Arratsaldez
14253183Z	Miguel Bayona, Natividad	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Etengabeko Atentzioa (EAG)	2		
16297887H	Calvo Ramirez, Marta	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Ntra. Señora de Estibaliz (Anb.)	2	2005-06-01	Arratsaldez
16058038J	Lopez Garciarena, Eneko	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Nanclares (Kons.)	2	2011-06-01	Arratsaldez
44146380L	Perez Camara, Belen	Bilboko Eskualdea	Bilboko Esk.-EAG Eskualdea	2	2011-06-01	
16053186Z	Martinez Ayuso, Miren Edurne	Arabako Eskualdea	Arabako Esk.-Arabako Lautada	2	2011-06-01	Arratsaldez